



## **Ezker abertzalea, EA eta Alternatiba alderdiek Zumalakarregiko errausketa-labeari baimena ez ematea eskatzen dute**

Ezker abertzalea, EA eta Alternatiba alderdiek gai honekiko ardura duten administrazioei, Udalari zein Lakuari, Zumalakarregiko errausketa-labeari baimena ez emateko eskatzen diete. Euren artean erantzukizuna elkarri leporatu ez diezaiotela eta errausketa-labea hiritik kanpo lekualda dezatela eskatzen diete. Otsailaren 16rako deitutako auzo manifestazioarekin bat egiten dute.

Bilboko ezker abertzalea, EA eta Alternatiba alderdiak Zumalakarregiko errausketa-labea zabaltzearen aurkakoak dira. **Hiri barruan jarduera kutsagarriak baimentzea bidezkoa ez dela** uste dute. Funeraria Bilbainak sortuko duen kutsadurak Uribarri, Zurbaran, Begoña, Zurbaranbarri eta Iturrialde auzoetako **25.000 biztanle kaltetuko du**.

Arazo honen aurrean ardura duten **administrazioek axolagabeki jokatu dute**. Ezin ahaztu, Funeraria Bilbainak errausketa labea martxan jartzeko udal baimena lortu zuela, Hirigintza zinegotziaren arduragabekeria dela medio. Era berean, Gasteizko Gobernuo Ingurugiroko sailaren ardura azpimarratzen dute. Pilar Unzaluk zuzentzen duen sailak 1976. urteko lege batean oinarritzen da baimena emateko. **Europatik datozen zuzentarauak eta araudia, aldiz, oso zorrotzak dira** gai honen inguruan: halako jarduera kutsagarriek hirigunetatik kanpo egon behar dute.

Lotsagarritzat jotzen dituzte Bilboko Udalaren zein Lakuaren jarrerak. Batera jo eta herritarrek osasunerako duten eskubidea bermatu beharrean, elkarri leporatzen diote ardura.

Ezker abertzalea, EA eta Alternatiba alderdiek uste dute kutsadura eta minbizia eragin dezaketen partikulak sortuko dituen **tximiniaren eragin-eremuan bizi diren 25.000 biztanleen osasunerako eskubidea lehenetsi behar dela**.

Hori dela eta, EAJ, IU zein PSOE alderdiei dei egiten diete akordio batera heltzeko eta **erraste-labea hirigunetik kanpo lekualdatzea agintzeko**, herritarrek eskatzen duten moduan.

Bukatzeko, ezker abertzalea, EA eta Alternatiba alderdiek **bat egiten dute otsailaren 16rako arratsaldeko 7etan Zumalakarregiko beilatokitik abiatuko den manifestazioarekin**. Bide batez, bertan parte hartzeko deia luzatu diete herritarrei. **Osasunerako eskubidea orain!!!**

Bilbon, 2011ko otsailaren 14an

## Izquierda abertzale, EA y Alternatiba piden la no apertura del crematorio de cadáveres de Zumalakarregi

Los grupos municipales de la izquierda abertzale, EA y Alternatiba piden a las diferentes administraciones implicadas, Ayuntamiento y Lakua, que no permitan la apertura del crematorio de cadáveres de Zumalakarregi. Les piden que abandonen su política de atribución mutua de responsabilidades y estudien su traslado fuera del núcleo urbano. Se suman a la manifestación vecinal convocada para el próximo 16 de febrero.

Los grupos municipales de la izquierda abertzale, EA y Alternatiba se oponen de forma rotunda a la apertura del horno crematorio de Zumalakarregi. Consideran que **no es de recibo que se permita la puesta en marcha de actividades contaminantes en pleno casco urbano**. 25.000 residentes de los barrios de Uribarri, Zurbaran, Begoña, Zurbaranbarri e Iturrialde se verán afectados directamente por las emisiones contaminantes de Funeraria Bilbaína.

Consideran **nefasta y negligente la actuación de las diferentes administraciones** en este conflicto. Recuerdan que Funeraria Bilbaína obtuvo la licencia de apertura del horno crematorio debido a la negligencia de Urbanismo del Ayuntamiento. Así mismo, destacan la responsabilidad de Medio Ambiente del Gobierno de Gasteiz que se aferra a una Ley de 1976 para justificar el permiso, cuando directivas europeas y la **legislación comunitaria es clara al respecto: este tipo de industrias contaminantes tienen que ubicarse fuera de los centros urbanos**.

Consideran, igualmente, bochornosa la actitud de ambas administraciones que se achacan mutuamente la responsabilidad de la apertura del crematorio, en lugar de actuar de forma conjunta y buscar una salida que respete el derecho a la salud de la ciudadanía.

Para izquierda abertzale, EA y Alternatiba lo **prioritario, en este caso, es el derecho a la salud de las más de 25.000 personas que viven en el radio de acción de una chimenea** por la que se expulsarán partículas contaminantes y cancerígenas.

Por ello, reclaman tanto al PNV e IU como al PSOE lleguen a un acuerdo y **ordenen el traslado del crematorio fuera del casco urbano**, tal y como demanda el vecindario.

Por último, **se suman a la manifestación vecinal convocada para el miércoles 16** y que partirá a las 7 de la tarde desde el tanatorio de Zumalakarregi, al tiempo que hacen un llamamiento a la ciudadanía a tomar parte en ella. ¡El derecho a la salud es lo primero!

Bilbo, 14 de febrero de 2011